

INGURUNE ARLOAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

Urteko programazio didaktikoa

Ikastetxea:	Bentades Ikastetxea	Kodea:	014777	Ikasmaila:	4. maila
Etapas:	Lehen Hezkuntza	Ziklo-maila:	2. zikloa, Lehen Hezkuntzako 5. maila		
<ul style="list-style-type: none"> • Arloa/Gaia • Eremua • Diziplinar-teko proiektua • Beste batzuk 	Heziketa Fisikoa	Irakasleak:	Gorka Barrueta		

Programazio didaktikoaren justifikazioa

Programazioan garrantzitsuak diren erabakiak argudiatzea eta, horretarako, honako alderdi hauek kontuan hartzea: ikasleen abiapuntua, ikasgelaren testuingurua, ikastetxearen proiektuak, urteko memoriatik eratorritako hobekuntza proposamenak, etab.

Programazio didaktikoaren justifikazioa:

Urteko programazio didaktikoa irakaskuntzako jarduera profesionalaren parte da, eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua hobetzearekin lotuta dago. Funtsean, ikasleen beharrak eta ezaugarriak balioesten dituen helburu bat da, garatu nahi diren konpetentziak aztertzen dituen. Ondorioz, ikasleek arrakasta izateko ahalik eta itxaropen handienak garatzeko irakasle talde batean hartzen diren erabakiak zehazten dituen.

Oinarrizko irakaskuntzaren amaierako Ikasleen irteera-profila da Euskadi Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemaren printzipioak eta helburuak zehazten dituen tresna. Profilak identifikatu eta definitzen du, ikasleek beren prestakuntza-ibilbidearen aldi hori amaitzean lortu nahi dituzten funtsezko konpetentzien garapen-maila, etengabeko ikaskuntza-prozesuaren zati gisa.

Irteera-profilaren abiapuntua da konpetentzia giltzarrien ikuspegi estrukturala eta funtzionala aldi berean, eta hori eskuratzea

ezinbestekotzat jotzen da ikasleek beren garapen pertsonalerako, beren bizitzako esparruetako egoerak eta arazoak konpontzeko, hobetzeko aukera berriak sortzeko, bai eta haien sozializazioa garatzeko, prestakuntza-ibilbidearen jarraipena lortzeko eta gizartean eta ingurune naturalaren eta planetaren zaintzan aktiboki txertatzeko eta parte hartzeko ere. Proiektu hori ikaskuntza desberdinen elementu artikulatzailea da, eta, horri esker, zenbait erronkei aurre egin ahal izango die.

Oinarrizko irakaskuntza arrakastaz gainditzen duen ikasle orok, eta, beraz, irteera-profila lortzen duenak, eskuratutako ikaskuntzak mobilizatzen jakitea bermatu nahi da, bizitzan zehar izango dituen erronka nagusiei erantzuteko. Horren barruan sartzen dira:

- Jarrera arduratsua garatzea, ingurumenaren degradazioaren kontzientzia hartuz, hura eragiten, larriagotzen edo hobetzen duten arrazoien ezagutzan oinarrituta, ikuspegi sistemiko batetik, tokikoa zein globala.
- Kontsumo arduratsuarekin lotutako alderdiak identifikatzea, norberaren eta guztion ondasunean duten eragina baloratzea, beharrak eta gehiegikeriak kritikoki epaitzea eta kontsumitzaile gisa dituen eskubideen urraketan aurrean kontrol soziala egitea.
- Bizi-ohitura osasungarriak garatzea, organismoaren funtzionamendua ulertuta eta organismoan eragina duten barneko eta kanpoko faktoreei buruzko hausnarketa kritikoa eginda, osasun publikoa sustatzeko erantzukizun pertsonala bere gain hartuta.
- Sentsibiltatea lantzea ekitaterik eza eta bazterketa egoerak atzemateko, kausa konplexuak ulertuta, enpatia- eta erruki-sentimenduak garatzeko.
- Gatazkak gizarteko bizitzaren berezko elementu gisa ulertzea, modu baketsuan konpondu beharrekoak.
- Egungo gizarteak eskaintzen dituen era guztietako aukerak modu kritikoan aztertzea eta baliatzea, bereziki kultura digitalarenak, onurak eta arriskuak ebaluatuz eta bizi-kalitate pertsonala eta kolektiboa hobetzen lagunduko duen erabilera etiko eta arduratsua eginez.
- Ziurgabetasuna, erantzun sortzaileak artikulatzeko aukera gisa onartzea, berekin ekar dezakeen antsietatea maneiatzen ikasiz.
- Gizarte ireki eta aldakorretan lankidetzan aritzea eta elkarrekin bizitzea, aniztasun pertsonala eta kulturala aberastasun-iturri gisa baloratuz eta beste hizkuntza eta kultura batzuekiko interesa agertuz.
- Proiektu kolektibo baten parte sentitzea, bai tokiko eremuan, bai esparru globalean, enpatia eta eskuzabaltasuna garatuz eta guztion onerako erabaki koherenteak bultzatuz eta hartuz.

- Bizitzan zehar ikasten jarraitzeko aukera emango dioten trebetasunak garatzea, ezagutzan konfiantza izanik, garapenaren motor gisa, eta ezagutzaren arrisku eta onuren balorazio kritikoa eginez.

Erronka horiei eta beste batzuei erantzuteko, funtsezko konpetentzien azpian dauden ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak behar dira, eta curriculumak osatzen duten arlo, eremu eta jakintzagai guztietan lantzen dira. Horiek eskaintzen dituzten curriculum-elementuek ikasleei beren inguruan gertatzen dena ulertzen laguntzen diete, eta, horrela, egoera kritikoki baloratzeko eta behar bezala erantzuteko aukera ematen diete.

Hemen aurkezten den curriculumak konpetentzia-ikuspegia du, eta bertan, erronkei aurre eginez eskuratzen dira edukiak, kontzeptuzkoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak. Horrek ikaskuntzak eskuratzea eta mobilizatzea eta horiek transferitzeko gaitasuna bultzatzen du, eta, horrela, ikasleen prestakuntza-bilakaeran heldutasun-maila eta kalitate handiagoko ikaskuntza garatzen da.

Hurrengoak dira eskuratu beharreko funtsezko konpetentziak:

- **Hizkuntza komunikaziorako konpetentzia:** Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziak esan nahi du hainbat esparru eta testuingurutan modu koherente eta egokian elkarrekintzan jardutea, ahoz, idatziz, siglatuan edo multimodalean, eta hainbat komunikazio-helbururekin.
- **Konpetentzia eleaniztasuna:** Konpetentzia eleaniztunak hainbat hizkuntza, ahozkoak edo zeinuzkoak, ikasteko eta komunikatzeko modu egoki eta eraginkorrean erabiltzea eskatzen du.
- **Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniartzako konpetentzia:** Matematikarako konpetentziak eta zientzia, teknologia eta ingeniartzarako konpetentziak mundua ulertzea dakar berekin, metodo zientifikoak, pentsamendu eta irudikapen matematikoak, teknologia eta ingeniartzako metodoak erabiliz ingurunea modu konprometituan, arduratsuan eta jasangarrian eraldatzeko.
- **Konpetentzia digitala:** Konpetentzia digitalak teknologia digitalak modu seguruan, osasungarrian, jasangarrian, kritikoa eta arduratsuan erabiltzea eskatzen du, ikasteko, lanerako eta gizartean parte hartzeko, bai eta horiekin elkarreragitea ere.
- **Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa:** Konpetentzia pertsonalak, sozialak eta ikasten ikastekoak berekin dakar nor bere buruari buruz hausnartzeko gaitasuna, nor bere burua ezagutzeko, bere burua onartzeko eta etengabeko hazkunde pertsonala sustatzeko.

- **Herritartasunerako kompetentzia:** Herritartasunerako kompetentzia lagungarria da ikasleek herritartasun arduratsua izan dezaten eta bizitza sozial eta zibikoan bete-betean parte har dezaten, kontzeptu eta egitura sozial, ekonomiko, juridiko eta politikoen ulermenean oinarrituta.
- **Ekintzaitza kompetentzia:** Ekintzaitzarako kompetentziak aukera eta ideiekin jarduteko bizi-ikuspegia garatzea eskatzen du, beste pertsona batzuentzako baliozko emaitzak sortzeko beharrezkoak diren ezagutza espezifikokoak erabiliz.
- **Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako kompetentzia:** Kontzientzia eta kultura adierazpenetarako kompetentziak berekin dakar ideiak eta esanahia sormenez adierazteko eta kultura desberdinetan komunikatzeko modua ulertzea eta errespetatzea.

Justifikazio legala aldera batera utziz, eskolako testuinguruari buruz hitz egingo dugu. Bentades Ikastetxea Mungian kokatzen den eskola bat da, uribe kosta zonaldean. Eskola honetako familiak maila sozioekonomiko ertaina dute eta datu soziolinguistikoei dagokienez esan dezakegu nahiz eta Mungia herri euskalduna izan, gero eta etorkin gehiago daudela eta hau ikastetxean isladatzen da.

Ikastetxe honetan 700 ikasle inguru ditugu haurtzaindegitik hasi eta derrigorrezko bigarren hezkuntza bukatu arte. Maila bakoitzean bi lerro daude. Ikasketak D ereduan gauzatzen dira.

Ikastetxeko baliabide materialak hurrengoak dira Lehen Hezkuntzan. Ikasle talde bakoitzak bere gela dauka eta horrez gain, musika gela, plastika gela, liburutegia, jantokia eta areto nagusia ditugu. Solairu batetik bestera igotzeko behar izatekotan igogailu bat daukagu. Beste alde batetik, heziketa fisikoa egiteko patioaz gain, eskolako sotoa eskuragarri daukagu. Hura espazio oso handia eta estalia da. Normalean heziketa fisikorako erabiltzen da baina antzerkiak edo tailerrak egiteko ere erabilgarria izan daiteke.

Beste alde batetik, Heziketa fisikoa egiteko bi espazio ditugu zentroan, batean frontoia, saskibaloiko eta futboleko kantzak ditugu eta bestean egurrezko zorua. Gainera udal frontoia ere eskuragarri daukagu. Heziketa fisikoa egiteko espazio bakoitzak bere aldagelak eta bere biltegia ditu. Biltegieetan hainbat material dago eskuragarri (Hainbat motatako pelotak, freesbeak, sokak, konoak, uztailek, koltxonetak, zapiak, zankoak, petoak, etab.)

Baliabide pertsonalei dagokienez, Lehen Hezkuntzan 15 irakasle daude tutore eta irakasle espezifikokoak gehituz. Beste alde batetik,

orientazio talde bat dugu eta bertan 6 espezialista daude. Horrez gain eskolako orientatzaile eta psikologoa dugu behar izatekotan. Irakasleak ez diren beste profesional batzuk ere lan egiten dute eskolan gure egunerokotasuna errazago izateko, adibidez: jantokiko langileak, eskolako atezainak, idazkariak, zuzendariak, eta abar.

Ikasle batzuen beharrezanean erantzuna emateko Berritzegunetik ere zenbait espezialista etortzen dira eskolara, adibidez: logopega, fisioterapeuta, eta abar.

Eskolan zenbait proiektuetan murgilduta gaude baina maila honetan ikasleek ez dute denetan parte hartzen. Hurrengoak dira:

- Agenda 30.
- Euskera eta normalkuntza
- Bizikidetzaz
- IKT eta metodologia berriak
- Hezkidetzaz

Pasaden kurtsoko urteko memorian argitaratu zen bezala, hurrengoak dira etapa moduan ikasturte honetara begira planteatu genituen hobekuntzak:

- Metodologiari dagokionez, berrikuntzak sartzen jarraitu nahi dugu eta hasitako hobekuntza bidearekin jarraituko da.
- Euskerarekin lotuta gabezia ugari identifikatu ditugu eta hauei erantzuteko metodologia aldaketa bat proposatu da. Kurtso honetan zehar, irakasleok sortuko dugu materiala ziklo bakoitzari egokituta. Era horretan, ikasleak modu dinamiko eta erakargarrian hizkuntza bereganatu dezaten.

Programazio honen kalitatea eta emaitza bermatzeko, helburu errealistak ezarri behar ditugu. Horretarako irakasgai hau ematen duten irakasleak batu dira eta haien ikasleen errealitateara moldatu.

Kurtsu honetan, beste guztietan bezala bi lerro ditugu. Gela batean 22 ikasle daude eta bestean 23. Ikasle gehienak testuinguru euskaldun batean hasiak dira. Hala ere, kurtsuan guztira atzerritar bakarra dago eta hortaz, bere euskerazko hizkuntza maila,

adierazmenean batez ere, baxuagoa da.

Beste alde batetik, premia bereziko 7 ikasle ditugu gela bien artean banatuta. Hauek J.P.P.a (jarduera plan pertsonalizatua) dute eta moldaketak egiten zaizkie, bakoitzari bere beharrietara egokituta. Hala ere, ikasle hauek orientazio departamentuko irakasleengatik ere laguntza jasotzen dute bai gela barruan zein gelatik kanpo, haien ikaskuntza prozesuan laguntzeko.

Gure helburua ikasleek era dinamiko batean oinarritzko jakintzak eta konpetentziak lantzea da pertsona arduratsu, autonomo, sortzaile eta kritikoak bihurtzeko. Bide hori jarraitu ahal izateko programazio hau haien beharrietara moldatuta dago.

Curriculum-plangintza

Ikaskuntza egoeren	Arloak, gaiak, eremua			Oinarritzko ezagutzak
--------------------	-----------------------	--	--	-----------------------

izenburua (IkE)		Konpetentzia espezifikoak 1. ERANKSINEAN daude azalduta	Ebaluazio-irizpideak 2. ERANSKINEAN daude azalduta	3. ERANSKINEAN daude azalduta
LEHENENGO HIRUHILEKOA				
1.UD: Banakako egoera motorrak (desplazamenduak eta jaurtiketak)	Heziketa Fisikoa	1 HKK1, KE1, STEM5, KPSII1, KPSII2 eta KPSII4.	1.1 1.2 1.3 1.4	A. Egoera psikomotorrak A.1 A.2 A.5 A.6 G. Heziketa fisikoaren zeharkako jakintzak G.1 G.2 G.3 G.4 G.5 G.6 G.8 G.9 G.10
2.UD: Erronka	Heziketa Fisikoa	1	1.1	

kooperatiboak		HKK1, KE1, STEM5, KPSII1, KPSII2 eta KPSII4.	1.2 1.3 1.4	C. Kooperazioko egoera soziomotorrak C.1 C.2 C.3 C.4 C.6 C.7 C.8 F. Arte- eta adierazpen-egoera motorrak F.3 F.6 F.8 G. Heziketa fisikoaren zeharkako jakintzak G.1 G.2 G.3 G.4 G.5 G.6 G.8 G.9 G.10
		2 KPSII1, KPSII4 eta KPSII5	2.1 2.2	
		4 HKK5, KPSII1, KPSII3,	4.1 4.2	

		KPSII4, KPSII5, HK2, HK3, EK3 eta KAKK1		
		7 KE3, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK2, HK3, EK3, KAKK1, KAKK2, KAKK3 eta KAKK4.	7.1 7.2	
3.UD: Jolas tradizionalak	Heziketa Fisikoa	1 HKK1, KE1, STEM5, KPSII1, KPSII2 eta KPSII4.	1.1 1.2 1.3 1.4	D. Oposizioko / Kolaborazioko egoera soziomotorrak D.1 D.2 D.3 D.4 D.5 D.6 D.7
		2 KPSII1, KPSII4 eta KPSII5	2.1 2.2	
		5 STEM1, KPSII1, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK2, HK3 eta KAKK1.	5.1 5.2 5.3	

				D.8 G. Heziketa fisikoaren zeharkako jakintzak G.1 G.2 G.3 G.4 G.5 G.6 G.8 G.9 G.10
4.UD: Euskal dantzak eta herri kirolak	Heziketa Fisikoa	1 HKK1, KE1, STEM5, KPSII1, KPSII2 eta KPSII4.	1.1 1.2 1.3 1.4	D. Oposizioko / Kolaborazioko egoera soziomotorrak D.1 D.2 D.3 D.4 D.5 D.6 D.7 D.8 F. Arte- eta adierazpen-egoera motorrak F.2 F.3
		2 KPSII1, KPSII4 eta KPSII5	2.1 2.2	
		4 HKK5, KPSII1, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK2, HK3, EK3 eta KAKK1	4.1 4.2	
		7 KE3, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK2, HK3, EK3, KAKK1, KAKK2, KAKK3	7.1 7.2 7.3	

		eta KAKK4.		<p>F.6 F.8 G. Heziketa fisikoaren zeharkako jakintzak</p> <p>G.1 G.2 G.3 G.4 G.5 G.6 G.8 G.9 G.10</p>
BIGARREN HIRUHILEKOA				
5. UD: Launchball	Heziketa Fisikoa	<p>1 HKK1, KE1, STEM5, KPSII1, KPSII2 eta KPSII4.</p>	<p>1.1 1.2 1.3 1.4</p>	<p>A. Egoera psikomotorrak A.1 A.2 A.5 A.6</p>
		<p>2 KPSII1, KPSII4 eta KPSII5</p>	<p>2.1 2.2</p>	<p>D. Oposizizioko / Kolaborazioko egoera soziomotorrak</p>
		<p>5 STEM1, KPSII1, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK2, HK3 eta KAKK1.</p>	<p>5.1 5.2 5.3</p>	<p>D.1 D.2 D.3 D.4 D.5 D.6 D.7 D.8</p>

				G. Heziketa fisikoaren zeharkako jakintzak G.1 G.2 G.3 G.4 G.5 G.6 G.8 G.9 G.10
6. UD: Frontoi kirolak	Heziketa Fisikoa	1 HKK1, KE1, STEM5, KPSII1, KPSII2 eta KPSII4.	1.1 1.2 1.3 1.4	A.Egoera psikomotorrak A.1 A.2 A.5 A.6 B. Oposiziozko egoera sozomotorrak B.1 B.2 B.3
		2 KPSII1, KPSII4 eta KPSII5	2.1 2.2	
		3 KPSII1, KPSII3, KPSII5, HK3, KAKK1 eta KAKK3.	3.1 3.2	
		5 STEM1, KPSII1, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK2, HK3 eta KAKK1.	5.1 5.2 5.3	D. Oposizioko / KOlaborazioko egoera sozomotorrak D.1 D.2 D.3 D.4 D.5

				D.6 D.7 D.8 G. Heziketa fisikoaren zeharkako jakintzak G.1 G.2 G.3 G.4 G.5 G.6 G.8 G.9 G.10
7. UD: Raketa jolasak	Heziketa Fisikoa	1 HKK1, KE1, STEM5, KPSII1, KPSII2 eta KPSII4.	1.1 1.2 1.3 1.4	A.Egoera psikomotorrak A.1 A.2 A.5 A.6 B. Oposiziozko egoera soziomotorrak B.1 B.2 B.3 D. Oposizioko / KOlaborazioko egoera soziomotorrak D.1 D.2
		2 KPSII1, KPSII4 eta KPSII5	2.1 2.2	
		3 KPSII1, KPSII3, KPSII5, HK3, KAKK1 eta KAKK3.	3.1 3.2	
		5 STEM1, KPSII1, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK2, HK3 eta KAKK1.	5.1 5.2 5.3	

				D.3 D.4 D.5 D.6 D.7 D.8 G. Heziketa fisikoaren zeharkako jakintzak G.1 G.2 G.3 G.4 G.5 G.6 G.8 G.9 G.10
HIRUGARREN HIRUHILEKOA				
8. UD: Jolasak sortzen	Heziketa Fisikoa	1 HKK1, KE1, STEM5, KPSII1, KPSII2 eta KPSII4.	1.1 1.2 1.3 1.4	A.Egoera psikomotorrak A.1 A.2 A.5 A.6
		2 KPSII1, KPSII4 eta KPSII5	2.1 2.2	C. Kooperazioko egoera soziomotorrak C.1 C.2
		4 HKK5, KPSII1, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK2, HK3,	4.1 4.2	

		EK3 eta KAKK1		
		5 STEM1, KPSII1, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK2, HK3 eta KAKK1.	5.1 5.2 5.3	C.3 C.4 C.6 C.7 C.8 D. Oposizioko / KOlaborazioko egoera soziomotorrak D.1 D.2 D.3 D.4 D.5 D.6

9. UD: Kirol eskalada	Heziketa Fisikoa	1 HKK1, KE1, STEM5, KPSII1, KPSII2 eta KPSII4.	1.1 1.2 1.3 1.4	A. Egoera psikomotorrak A.1 A.2 A.5 A.6
		2 KPSII1, KPSII4 eta KPSII5	2.1 2.2	E. Ziurgabetasuna duten inguruneetako egoera motorrak E.1 E.2 E.3 E.5 E.6
		6 STEM1, STEM2, STEM5, KPSII1, HK4 eta EK1.	6.1 6.2 6.3	G. Heziketa fisikoaren zeharkako jakintzak G.1 G.2 G.3 G.4 G.5 G.6 G.8 G.9 G.10
10. UD: Antzerkigintza	Heziketa Fisikoa	1 HKK1, KE1, STEM5, KPSII1, KPSII2 eta KPSII4.	1.1 1.2 1.3 1.4	C. Kooperazioko egoera soziomotorrak C.1 C.2 C.3

		<p>7 KE3, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK2, HK3, EK3, KAKK1, KAKK2, KAKK3 eta KAKK4.</p>	<p>7.1 7.2 7.3</p>	<p>C.4 C.6 C.7 C.8 F. Arte- eta adierazpen egoera motorrak F.2 F.3 F.6 F.8 G. Heziketa fisikoaren zeharkako jakintzak G.1 G.2 G.3 G.4 G.5 G.6 G.8 G.9 G.10</p>
--	--	------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Erabaki metodologikoak

Estrategiak eta metodoak, hizkuntzen tratamendua, IDU, ikasleen eta irakasleen antolamendua, espazioen eta baliabideen erabilera, anistazunari erantzuna, etab.

A. Jarraibide metodologikoak:

A.1. Eredu metodologikoak:

Lehenik, zergatik eta zertarako ikasten duen azaldu behar zaio ikasleari, ikasleei kontzientzia bat sortzeko, motibatuta egoteko eta hortaz, emaitzak hobek izateko.

Ezagutza mailan zer ikasten ari den ere azaldu behar zaio ikasleari, saio bakoitzean lortu nahi den helburua argi azaldu behar zaio. Helburua, beraz, ikasleak duen abiapuntua, trebetasunak eta ulermen-mailak zehaztea da. Hori dela eta, ikasleak egin behar duen lanaren aurrean ulermenerako aukerak eskainiko zaizkio, aurretik dituen ezagutzak aktibatuz. Horrela, helburuak eta lan-edukiak era errealista batean aukeratuko dira, ikasleak dakien eta ikasi behar duen horren inguruan jauzi handirik egon gabe. Landuko den informazioa ahoz eskainiko zaie ikasleei.

Eskatzen zaiena egiten dakiten ikasleak lortzeko xedea ezarri behar da. Horrekin batera, akatsetatik eta ondo eginiko ekintzetatik ikastearen garrantzia azpimarratu behar zaio ikasleari, praktika uneak eta hausnarketa faseak elkar sustatuz (erantzun motorra praktikan jarri, praktika denbora baten ondoren gelditu, emaitzak aztertu, ondorioak atera, ekiteko plan berria diseinatu eta berriro praktikan jartzea prozesua etengabe errepikatuz lortu nahi den ikaskuntza lortu arte). Fase horietan irakaslearen feedbacka ezinbestekoa bihurtzen da. Prozesu honetan beren lana ebaluatzen irakatsi behar zaio ikasleari, horretarako hainbat tresna eskainita (autoebaluazio-orriak, koebaluazio-orriak, errubrikak, elkarrizketa, koaderno digitala ...).

Ikas-egoerek dituzten helburuak lortzeko, jarduerak era progresiboan daude antolatuta saioz saio, eta ikasleen premien arabera egokituko ditu irakasleak. Saio guztietan jarduera nagusi bat egongo da, eta jarduera nagusi hori aurrez aipatutako progresioaren ondorioa izango da. Hala, saioz saio, jolas egoerak zailduz, jolas arauak gehituz eta jokalaria zein espazioak moldatuz joango dira.

Ibilbide horretan, irakasleak ikasleei gutxienezko aginduak emango dizkie, ikasleek bizitako esperientzietatik ondorioak eta zer ikasiak atera ditzaten. Jolasak, aldika, errepikatuko dira saioetan zehar. Ikasleek jolas bakoitzean rola ondo bereiz ditzaten eta inplikazio emozionala lor dezaten, jolasa lehen aldiz azaltzean istorio baten bidez aurkez daiteke.

Irakasleak egokitu beharko ditu bai jarduerak, bai jolasen araudiak, dagokien taldeei eta ikasleei, unean uneko ezaugarriak eta beharrak kontuan hartuta.

A.2. Multzokatzeak: Taldeak orekatuak eta heterogeneoak izatea bermatuko da. Talde txikietan zein talde handietan egingo dituzte jarduerak, eta, ikasleen autonomia sustatzeko, haiek izango dira, gehienetan eta txandaka, taldeak egingo dituztenak. Multzokatze hauek komunikazio trebetasunak eta talde-lanean aniztasuna errespetatzeko gaitasuna garatuko dituzte.

A.3. Espazioak: Heziketa fisikoa egiteko bi espazio ditugu zentroan. Alde batetik frontoia, saskibaloiko eta futboleko kantzak ditugu eta beste aldetik eraikuntzaren sotoan egurrezko zorua duen estalitako espazioa. Gainera, udal frontoia ere eskuragarri daukagu. Heziketa fisikoa egiteko espazio bakoitzak bere aldagelak eta bere biltegia ditu. Biltegietan hainbat material dago eskuragarri. Saioak ingurune egonkorrean zein ez-egonkorretan –kiroldegia, patioa, ingurune naturalean- egingo dira. Horretarako, eta beti segurtasuna bermatuz, beharrezkoak diren jolas-eremuak eta joko-zelaiak antolatuko dira bertan.

A.4. Baliabideak: Baliabide desberdinak erabiliko dira, besteak beste:

- Materialari dagokionez, ikasleen adinerako aproposak direnak erabiliko dituzte. Ikaskuntza egoera bakoitzean saioak aurrera eramateko beharrezko materialak: petoak, heziak, baloi eta pilota ezberdinak, konoak, txintxetak, uztaiak, diskoak, sokak, eta abar.
- Herri kirolak lantzerakoan Euskal Herri Kirolen Elkarteak erreztutako eta denbora batez utzitako materiala erabiliko da, adib.: txingak, sokatira soka, ingudea, lokotxak, zakuak...
- Material multimedia eta interaktiboa kirol ezberdinen bideoak ikusteko, aurkezpenak egiteko eta koreografiak montatzeko eta grabatzeko.
- Inprimatutako materialak Akrosport eta gorputz adierazpena bezalako ikaskuntza egoerak aurrera eramateko.

A.5. Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak: Jarduera batzuk proposatuko dira, hala nola birziklatze ekintza desberdinak. Jarduera hauek Agenda 30 proiektuaren barne biltzen dira.

B. Aniztasunari arreta:

Ikasleen aniztasunari erantzuteko, edukia eta jarduerak egokituko dira, ikasle bakoitzak bere ikaskuntza-erritmoaren eta premien arabera helburuak lor ditzan. Dibertsifikazio estrategiak erabiliko dira, hala nola laguntza-materialak, ikusizko laguntzak eta azalpen egokituak. Egia bada ere talde-lanak izango direla gure oinarri, gelan landutakoa modu bisual eta argian eskuragai izan dezaten, mapa kontzeptualak banatuko zaizkie ikasle guztiei. Hauek ere baliagarrik izango dira etxean gelan landutako birpasatu ahal izateko. Halaber, aurrerapen azkarra duten ikasleei jarduerak zabaltzeko aukera eskainiko zaie. Aniztasunari arreta horretan ikasle guztiek ekarpena egin dezakete, beren gaitasunen arabera.

Curriculum-a hasiera batetik egokitua egon behar da ikasleentara eta ez alderantziz. Horrela, curriculum pertsonalizatu eta praktikoagoa lortuz, non ikasle guztien beharrak erantzuten eta asetzen diren. Beraz, hori lortzeko Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsala-ren (IDU) 3 printzipioak martxan jarri behar dira.

I. printzipioa: Ikasleei erraminta eta bide desberdinak emango zaizkie autonomiaz informazioa eta oinarritzko jakintzak eraikitzeko.

II. printzipioa: ikasleek ikasitakoa era desberdinetan adierazi ahalko dute: idatziz, ahoz eta abar. Bakoitzaren beharrietara moldatuko gara eta baita ebaluazioaren zein momentutan gauden.

III. printzipioa: ikasleei erronka ezberdinak aurkeztuko zaizkie era desberdinetan parte hartu ahal izateko eta era horretan ikasle guztiak ikaskuntza prozesuan konprometitu eta motibatu daitezke era desberdinetan.

Metodologia aipatzeko orduan Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalerako (IDU) printzipioak jarraituko dira ikasleen berdintasuna eta ekitatea bultzatzeko asmoz, hala nola; irudikatze modu ugari ematea, ekintza- eta adierazpen-modu ugari ematea eta inplikatzeko modu ugari ematea. Irakasleak hiru printzipio hauek kontutan hartuko ditu saioak garatzerako orduan, ikaskuntzari oztupoak kentzen ahalegindu beharra baitago ikasle guztiek ikasteko aukera izan dezaten, aniztasuna kontuan izanda denen ikasteko aukera berdintasuna bermatuz.

Irakasleak, ahal duen neurrian, banakako plan bat prestatuko du arloko helburuak lortzeko zailtasunak dituzten ikasleentzat (laguntza-plana), edo helburuak oso erraz lortzen dituztenentzat (aberastea) guztien laguntza-premiei erantzuteko asmoz.

C. Ebaluazioa :

Ebaluazioa jarraia izango da, eta honela burutuko da:

- Behaketa zuzena, jarduera ezberdinetan ikasleek duten errendimendua neurtzeko.
- Ebaluazio errubrikak erabiltzea, kompetentzia zehatz eta jarrerazkoak baloratzeko (erantzukizuna, errespetatzea, elkarlana, osasuna eta higieena).

D. Errefortzurako estrategiak eta berreskurapen-planak:

Kompetentzien ulermenean eta garapenean zailtasunak dituzten ikasleei laguntza eskainiko zaie:

- Banakako indartze-jarduerak eta talde txikietan.
- Tutoretza pertsonalizatuak eskaintzea, oinarritzko kontzeptuak berrikusteko.

Ebaluazio-erabakiak, ebaluaziotik ateratako ondorioak eta kalifikazio-irizpideak

Ebaluazioa

- Helburua (formatiboa, akreditatzailea)
 - Finkatutako denborak (hasieran, prozesuan zehar, amaieran)
 - Ebaluatze teknikak, tresnak eta erramintak
 - Eragileak (autoebaluatzea, elkarri ebaluatzea eta heteroebaluatzea)

- Helburua ebaluazio formatiboa izatea da.
 - Ebaluazio hezitzailea:
 - Ikaskuntza- irakaskuntza prozesuan zehar.
 - Informazio bilketa jarraia.
 - Ikaskuntza- irakaskuntza gidatzeko eta ikasleen jarduna hobetzeko erabiliko da.
 - Ebaluazio hezigarria: ikasleek bideratua.

Gaur egun, dagoeneko ez da kalifikazioa=ebaluazioa formulan sinisten, eta ez litzateke gure praktikan aplikatu behar. Ebaluatzea ez da kalifikatzea, ez da nota bat jartzea eta ikasleen sailkapen bat egitea (trebeak eta ez trebeak). Ebaluazioa zerbait zabalagoa bezala ulertzen da, egindako prozesu hezitzailearen diagnostikoa da, hobekuntzarako tresna eta ikaslea (bere ikas-erritmoak errespetatuz) erdigunean jartzen duen prozesua.

	<ul style="list-style-type: none">● Finkatutako denborak: ebaluazioa prozesuaren hasieran, prozesuan zehar eta amaieran izango da.● Ebaluatzeko teknikak:<ul style="list-style-type: none">○ Behaketa etengabea oinarrituta○ Banakako eta taldeko jarduerak.○● Eragileak: <p>Ikas-egoeraren hasieran, garapenean eta bukaeran tresnak eta erremintak desberdinak (fisikoa/digitala) erabiliko dira ebaluazio formatiboa egiteko:</p> <ul style="list-style-type: none">- Hasierako ebaluazio-orria (irakasle/ikasle).- Autoebaluazio-orria (ikasleak).- Koebaluazio-orria (ikasleak).- Elkarrizketa ikasle eta irakaslearen artean (irakasle/ikasle).- Grabaketak (irakasle/ikasle).- Ikas-irakaskuntza prozesuaren ebaluazio-orria (irakasleak).
<p>Ebaluazioaren ondorioak:</p> <ul style="list-style-type: none">● Kalifikazioa	<p>Ikasle baten ikaskuntzari buruzko ebidentzia asko eta anitzak eskuratu eta gero, ebaluaziotik eratorzen den kalifikazioa lortuko dugu.</p> <p>Konpetentzia espezifikoak oinarri hartuta egingo da eta hauen zehaztapen maila lorpen adierazleak izango dira.</p> <p>Ebaluaketa bakoitzaren amaieran boletin bate jasoko dute familiek. Boletin honetan irakasgai honetako konpetentzia espezifikoetan lortutako maila agertuko da: maila aurreratua, maila ertaina edo hasierako maila; kolorez adierazita.</p> <p>Honez gain, kurtso bukaeran eta Hezkuntza sailak ezarrita notak era kualitatibo baten</p>

	jarri behar ditugu Hezkuntzako plataforman.																								
<p>Kalifikazio-irizpideak</p> <p>Ikastetxearen autonomiaren baitan, curriculumaren hainbat erabaki curricular hartuko dira, hala nola:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikas-maila bakoitzerako lorpen-mailak erabakitzea • Ebaluazio irizpideen jardun maila adostea. • Gaitasunen garapen-maila adostea • Berariazko gaitasunen ponderazioa, • ebaluazio-irizpideak... definitzea) 	<p>Azken kalifikazioa konpetentzia espezifikoen ponderazioarekin lortuko da. Ondoren adierazten den konpetentzia espezifikoen ponderazioa hartuko da kontuan.</p> <p><i>* Konpetentzia espezifiko guztien ponderazioa ez da zertan berdina izan.</i></p> <table border="1" data-bbox="770 579 2087 1329"> <thead> <tr> <th data-bbox="770 579 1223 687">KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK</th> <th data-bbox="1223 579 2087 687">PORTZENTAIA</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td colspan="2" data-bbox="770 687 2087 746" style="text-align: center;">1. HIRUHILEKOA</td> </tr> <tr> <td colspan="2" data-bbox="770 746 2087 805" style="text-align: center;">1. , 2. , 3. eta 4. Unitate Didaktikoak</td> </tr> <tr> <td data-bbox="770 805 1223 865">1.Konpetentzia</td> <td data-bbox="1223 805 2087 865">%20</td> </tr> <tr> <td data-bbox="770 865 1223 924">2.Konpetentzia</td> <td data-bbox="1223 865 2087 924">%20</td> </tr> <tr> <td data-bbox="770 924 1223 983">4.Konpetentzia</td> <td data-bbox="1223 924 2087 983">%20</td> </tr> <tr> <td data-bbox="770 983 1223 1042">5.Konpetentzia</td> <td data-bbox="1223 983 2087 1042">%20</td> </tr> <tr> <td data-bbox="770 1042 1223 1101">7.Konpetentzia</td> <td data-bbox="1223 1042 2087 1101">%20</td> </tr> <tr> <td colspan="2" data-bbox="770 1101 2087 1160" style="text-align: center;">2. HIRUHILEKOA</td> </tr> <tr> <td colspan="2" data-bbox="770 1160 2087 1219" style="text-align: center;">5. , 6. eta 7. Unitate Didaktikoak</td> </tr> <tr> <td data-bbox="770 1219 1223 1278">1.Konpetentzia</td> <td data-bbox="1223 1219 2087 1278">%10</td> </tr> <tr> <td data-bbox="770 1278 1223 1337">2.Konpetentzia</td> <td data-bbox="1223 1278 2087 1337">%40</td> </tr> </tbody> </table>	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	PORTZENTAIA	1. HIRUHILEKOA		1. , 2. , 3. eta 4. Unitate Didaktikoak		1.Konpetentzia	%20	2.Konpetentzia	%20	4.Konpetentzia	%20	5.Konpetentzia	%20	7.Konpetentzia	%20	2. HIRUHILEKOA		5. , 6. eta 7. Unitate Didaktikoak		1.Konpetentzia	%10	2.Konpetentzia	%40
KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	PORTZENTAIA																								
1. HIRUHILEKOA																									
1. , 2. , 3. eta 4. Unitate Didaktikoak																									
1.Konpetentzia	%20																								
2.Konpetentzia	%20																								
4.Konpetentzia	%20																								
5.Konpetentzia	%20																								
7.Konpetentzia	%20																								
2. HIRUHILEKOA																									
5. , 6. eta 7. Unitate Didaktikoak																									
1.Konpetentzia	%10																								
2.Konpetentzia	%40																								

	3.Konpetentzia	%25
	5.Konpetentzia	%25
	3. HIRUHILEKOA	
	8. , 9. eta 10.Unitate Didaktikoak	
	1.Konpetentzia	%10
	2.Konpetentzia	%30
	4.Konpetentzia	%10
	5.Konpetentzia	%10
	6.Konpetentzia	%20
	7.Konpetentzia	%20

1.ERANSKINA: KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1.ERANSKINA: KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Jarduera fisikoak osasun globalean dituen ondorioak ezagutzea, emozioen eta gatazken kudeaketa landuz, osasun fisikoa, emozionala eta soziala indartzeko.
2. Ziurgabetasunetik gabeko inguruneetako egoera psikomotorretan jardutea, norik bere burua ezagutzeko, autoerregulatzeko eta gaitasun fisikoak hobetzeko ekintza-eskemak barneratuz.
3. Ziurgabetasunik gabeko inguruneetan, oposizioko egoera soziomotorretan eskakizunetara egokitzea, parte-hartzaileekiko errespetua eta arauak lehenetsiz - emaitzen gainetik -, erronkarekin lotzen diren jokabideak arautzeko eta kultura motorra eskuratzen eta sortzen laguntzeko.
4. Ziurgabetasunik gabeko inguruneetako kooperazio-egoera soziomotorretan moldatzea, autoerregulazio-prozesuak jarrera enpatiko eta inklusiboz garatuz, gizarte-trebetasunak baliatuz eta kooperazioko eta errespetuzko jarrerak hartuz, parte hartzen den guneetan gizarte bizikidetzeta eta konpromiso etikoa lortzen laguntzeko.
5. Ziurgabetasunik gabeko inguruneetako oposizioko/kolaborazioko egoera soziomotorretan elkarrekin aritzea, horrelako jardueren berezko ekintza-arauez eta -printzipioez jabetuz, informazio-eskaera handiko egoeretako jokabide motorra egokitzen hasteko eta kultura motorra eskuratzeko lagungarria izateko.
6. Ziurgabetasuna duten inguruneetako egoera motorretan jarduteko aukerak aurkitzea eta baliatzea, ikuspegi iraunkorretik ingurununea errespetatuko duen eta arriskuaren gainetik segurtasuna lehenetsiko duen jarduera eginez, zenbait natura eta hiri-ingurune jardunaren testuinguru gisa baloratzeko eta ingurune horiek zaintzen eta hobetzen laguntzeko.

7. Gorputza adierazpen- eta komunikazio-tresna gisa baliatzea, haren eragina baloratuz, baita kultura tradizionalari eta garaikideari egiten dizkion ekarpen estetikoak eta sorkuntzakoak ere, eguneroko bizitzan modu erregularrean erabiltzen diren jarduketa motorren artean integratzeko.

2. ERANSKINA: EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. KONPETENTZIA

1.1 Jarduera fisikoa aisialdirako alternatiba osasungarri gisa antzematea, bizimodu aktiboak maila fisikoan eta mentalean dituen ondorio onuragarriak antzemanaz eta jarduera fisikorako eta esfortzurako jarrera positiboa hartuz.

1.2 Jarrera-hezkuntzarako, elikadura osasungarrirako, gorputz-higienerako eta jardun motorraren prestaketarako neurriak aplikatzea, erantzukizunak hartuz eta eguneroko egoeretan errutinak sortuz —istripuren bat gertatuz gero nola jokatu jakitea—.

1.3 Norberaren eta besteen gorputzaren irudia ezagutzea, norbanakoen artean egon daitezkeen aldeak onartuz eta errespetatuz, jarrera diskriminatzailerak gaindituz eta baztertuz eta gatazkak elkarriketa bidez kudeatuz.

1.4 Egoera motorretako dimentsio afektiboen garrantzia baloratzea, norberaren emozioak kudeatzen hasiz eta besteenak identifikatuz.

2. KOMPETENTZIA

2.1 Motrizitatearen osagai kualitatibo eta kuantitatiboak eraginkortasunez eta sormenez erabiltzea zenbait testuingurutan, gorputzak osagai horien gaineangero eta kontrol eta menderatze handiagoa izan dezan lortuz eta oinarrizko gaitasun fisikoak identifikatuz.

2.2 Nork bere burua ezagutzea eta erregulatzea, ekintza-eskemak barneratuz, jarduera eta jolas psikomotorren bidez.

3. KOMPETENTZIA

3.1 Oposizioko ekintza motorrak kateatzea, aurkariaren jokabide motorrei aurre eginez eta arauak eta parte-hartzaileak errespetatuz.

3.2 Norberaren kulturen errotutako joko eta kiroletan modu aktiboan parte hartzea, baita askotariko kulturetatik datozen beste batzuetan ere, oldarkortasuna eta emozioak kontrolatuz.

4. KONPETENTZIA

4.1 Kooperazio-egoeren eskaerei erantzuteko ekintzak kateatzea, oinarrizko mugimendurako trebetasunak hautatuzeta taldearekiko konpromisoarekin eta elkartasunarekin konbinatuz.

4.2 Harrera, inklusio, laguntza eta kooperazioko gizarte-trebetasunak garatzea, gatazka indibidualak eta kolektiboak elkarrizketa bidez kudeatuz eta estereotipoen, jarduera diskriminatzaileen eta indarkeriaren aurrean konpromiso aktiboa erakutsiz.

5. KONPETENTZIA

5.1 Oposizioko/kolaborazioko egoerei erantzuteko ekintzak kateatzea, eskatutako ekintza-arauak barneratuz eta norberaren eta besteen emozioak ulertuz.

5.2 Ikasgelan adostutako arauak eta joko-arauak errespetatzea, eta kiroltasunaren eta joko garbiaren parametroen arabera jardutea, parte- hartzaileenekarpenak baloratuz.

5.3 Norberaren kulturen errotutako joko eta kirolean, tradizioan edo gaur egungoetan, modu aktiboan parte hartzea, baita askotariko kulturetatik datozen beste batzuetan ere, horien jatorria, agerpena eta denboran izan duten transmisioa testuinguruan kokatuz.

5.4 Kirolari buruzko ikuspegi irekia hartzea, hainbat liga eta txapelketa ezagutzea abiapuntu izanik (emakumezkoenak, gizonezkoenak edo mistoak), kirol federatura hurbilduz eta bizikidetzaren aurkako portaerak identifikatuz eta baztertuz, edozein testuingurutan gertatzen direla ere.

6. KOMPETENTZIA

6.1 Ekintza motorrak egitea, informazioa deskodetuz eta ikasleen motrizitatea ikastetxearen inguruko natura- eta hiri-inguruneko jardueren ziurgabetasunera egokituz.

6.2 Jardun motor segurua garatzea natura- eta hiri-testuinguruetan, ekintzak egoera bakoitzaren azterketara egokituz eta ingurumena zaintzeko neurriak aplikatuz.

6.3 Jarduera fisikoa egitean segurtasun-neurriak hartzea, arrisku- testuinguruak ezagutuz eta horien aurrean kontuz jokatzuz.

7. KOMPETENTZIA

7.1 Sentimenduak, emozioak edo ideiak transmititzen dituzten komunikazio- jardunetako banakako eta taldeko mugimendu-konbinazioak edo koreografiak erreproduzitzea, gorputzaren adierazpen- eta erritmo- baliabideak erabiliz.

7.2 Banakako edo taldeko proiektu motorrak egitea, lortutako emaitzak aztertzekeo estrategiak erabiliz.

7.3 Inguruneko berezko kulturaren arloko arte-adierazpen espresiboetan modu aktiboan eta bidezkoan parte hartzea, modu kritikoan baloratuz gizartean dituzten garrantzia, ondorioak eta eragina.

3.ERANSKINA: OINARRIZKO JAKINTZAK

A multzoa. Egoera psikomotorrak

Gorputzaren kontrola, automatismo eta estereotipo motorrak.*

Gorputz-eskema: kontrol tonikoa eta jarrerakoa eta independentzia segmentarioa, egoera motorretan.
Lateralitatearen definizioa. Koordinazio dinamiko orokorra eta segmentarioa.*

Oinarrizko gaitasun fisikoak jolas-jardueretan.*

Oinarrizko gaitasun eta trebetasun motor orokorrak: lokomotorrak, ez-lokomotorrak eta manipulaziokoak.
Tebetasunen konbinazioa.*

Sormen motorra: ekintza motorra barne- eta kanpo-estimuluen arabera aldatu eta egokitu. orberaren gaitasunak eta mugak.

B multzoa. Oposizioko egoera soziomotorrak

Aurkaria gainditzeko oinarrizko nozioak eta ekintza-printzipioak: ekintza espazioan duen kokapenaren arabera egokitu, ekintza bakoitzaren ondoren birkokatu, aurkariaren indarra erabili, alternantzia, aurrea hartu, oreka eta desoreka, espazioak eta denborak murriztu/areagotu, mugikariaren jarraitutasuna eta trukea...*

Estrategia sinpleak oposizioko egoeretan.*

“Urrezko” segurtasun-arauak: minik ez hartu, minik ez eman eta min ematen ez utzi.*

C Multzoa. Kooperazioko egoera soziomotorrak

Esparru honen berezko askotariko jardun motorrak.

Ekintza printzipioak eta arrakasta lortzeko gakoak kooperazio-egoeretan: taldeko ekintzak lankideekin koordinatu eta kateatu, sinkronizatu, algoritmo motorrak, gorputza kontrolatu, erabakiak adostasunez hartu...*

Jokoan bertan proposatzen den erronka bati edo sortzen den arazo bati konponbidea emateko erantzun originalak. Harrerako, inklusioko, laguntzako eta kooperazioko gizarte-trebetasunak.*
Oinarrizko trebetasun motorren aukeraketa eta konbinazioa.*

Gatazka indibidualak eta kolektiboak elkarrizketa bidez ebatzi.*

Diskriminazioko eta indarkeriako jokabideen aurreko jarduketak.*

Taldearekiko konpromisoa eta elkartasuna.*

D multzoa. Oposizioko/kolaborazioko egoera soziomotorrak

Joko tradizionalen dibertsitatea, esparru horretako berezko jarduera fisikoak.

Nork bere ekintza aztertzeko eta azaltzeko prozedura.

Jardun horiekin lotzen diren nozioak: norabidea, iskin egin, paserako eta jaurtiketarako distantzia ...*

Defentsako eta erasoko ekintza motorrak. Jokoaren taktikaren hastapenak.*

Jokoen arauak ezagutu, errespetatu eta onartu.*

Ekintza motorrak kateatu eta ekintzen sorta zabaldu.*

Babes-arauak (baloia daramanarekiko distantzia, hura ez ukitu).

Oposizio kolektiboko jardunen balioak (saiatzea, zintzotasuna, elkartasuna, segurtasuna, legezkotasuna).

E multzoa. Ziurgabetasuna duten inguruneetako egoera motorrak

Landa-inguruneetako jarduerak fisikoak.

Energia kudeatu eta erregulatu, jarduerak behar bezala garatzeko.

Emozioen kontrola ziurgabetasuna duen esparru batean.*

Oinarrizko orientazio-teknikak: norbera kokatzeko bidezko informazioak eta erreferentziak hartu.*

Arriskuak eta jarduerak seguruak norberarentzat (autobabesa) eta gainerakoentzat (arriskuak identifikatu gune ezezagun batean; segurtasun-baldintza onak dituzten oztopoak gainditu; arriskuak hartu norberaren gaitasunen arabera).*

Jarduerak horietarako berezko materiala eta ekipamendua, segurtasunekoak barne.
Hiri-testuinguruko naturaguneak: erabili, gozatu eta mantendu.

F multzoa. Arte- eta adierazpen-egoera motorrak

Gorputzaren komunikazio-erabilerak: sentsazioak, sentimenduak, emozioak eta ideia sinpleak komunikatu.* Euskal kulturako eta beste kultura batzuetako erritmo- eta musika-jardun artistikoak eta adierazpenekoak.* Norberaren espazioa eta hurbileko espazioa, erritmoa eta denboraren antolaketa.*

Mugimenduaren eta haren osagaien kalitateak: energia (indartsua-ahula), espazioa (tamaina handia edo txikia, aurrera, atzera, alborra, desplazamenduan, irekia/itxia, gainean/azpian...) eta denbora (azkarra-makala, iraupenak, esaldiak, isiluneak, hasiera/amaiera).*

Ekintza-kontrasteak (txikia/handia, zabala/estua, igurtzi/jo, astuna/arina, azkarra/makala).*

Norberaren eta besteen produkzioak. Gainerakoen begirada onartu.*

Genero-estereotipoak eta horien ondoriozko mugak.*

Ekoizpen artistikoak, espresiboak eta akrobatikoak behatzeko irizpideak: zailtasuna, aniztasuna, jarraipena.

Dantzetako oinarrizko pausuak.*

G multzoa. Heziketa fisikoaren zeharkako jakintzak

Osasun fisikoa: bizimodu aktibo baten ondorio fisiko eta psikologiko onuragarriak. Gorputzaren zaintzan eragina duten oinarrizko faktoreak. Jarduera fisikoarekin zerikusia duten higiene pertsonaleko jarraibideak. Istripuen prebentzioa jardun motorretan.*

Gizarte-osasuna: jarduera fisikoa, ohitura eta alternatiba osasungarri gisa, aisialdi modu kaltegarrien aurrean. Entzute aktiboa eta negoziazio-estrategiak testuinguru motorretako gatazkak ebazteko. Egoera motorretan bizikidetzaren kontrako jokabideak, diskriminatzaileak edo sexistak baztertu.*

Osasun mentala: norberaren gorputza errespetatu eta onartu. Nork bere burua ezagutu eta indarguneak eta ahulguneak identifikatu.*

Jardueraren parte diren rola eta azpirrolak hartu: defendatzailea/erasotzailea, jazarlea/jazarria, preso, epailea, ebaluatzailea.*

Jokoaren arauak eta segurtasun-arauak ezagutu, errespetatu eta onartu.*

Materiala zaindu eta prestatu, garatu beharreko jokoaren arabera.

Proiektu motorren plangintza eta autoerregulazioa: planifikatutakoa gauzatzeko oinarrizko mekanismoak.

Bizikidetzaren aurkako jokabideak: identifikazio-estrategiak eta ondorio negatiboak.*

Kultura motorrak kultura-herentziari egiten dizkion ekarpenak. Jolasak eta dantzak, kulturartekotasunaren adierazpen gisa.

Kirola eta genero-ikuspegia: zenbait generotako kirolari erreferenteak.* Bide-hezkuntza. Mugikortasun iraunkorra.